

Maitasun diotimikoa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Atenas, K.a. V. mendea. Periklesek deituta, Diotima Mantineakoa emakume apaiza eta filosofoa hirira iritsi zen, hamar urtez luzatzen ari zen izurri agerraldia eteteko, jainko-jainkosen laguntza bila zezan. Mantinean jaio zela eta hiri horretatik etorri zela ondorioztatu daiteke, baina hari buruzko beste datu biografikorik ez dago. Gainera, iturri bakarra aipatzen du Diotima, Platonen *Oturuntza* lanean.

Platonek dio behin Sokrates festa batean zegoela, hainbat gizon maitasuna deskribatzen saiatu zirela. Orduan Sokratesek hartu zuen hitza eta azaldu zuen Diotimak irakatsi ziola maitasuna zer zen. Hortaz, Diotima Sokratesen irakaslea edo mentorea izan zen. Eta haren bizitzaren inguruko ia daturik ez badago ere, Platonek bere pentsamendu filosofikoa azaltzen du Sokratesen bidez. Diotimaren ustez, maitasunean pertsona eta emozioa bereizita daude. Maitasuna pertsonatik bereiztean, eta hori maitasunaren eramaile independentetzat jotzen dugunean, geure burua jainkozko errealtatean sar daiteke. Azken finean, kontakizun horren bidez, Platonek esaten du maitasun platonikoaren kontzeptuaren jatorrian Diotima dagoela.

Baina iturri garaikide bakarra izanda, aditu gehienek Diotima benetan existitu zela ukatzen edo zalantzan jartzen dute, emakumeek eremu akademikoan eragin



DIOTIMA MANTINEAKOA (JÓZEF SIMMLER, 1855).

oso gutxi zeukaten garaian. Platonek *Oturuntzan* aipatzen dituen eta errealtzat jotzen dituen beste pertsonaiak benetan existitu zirela dakigu. Orduan, Diotimaren erreferentzia zergatik ez da erreala? Bada Diotima agian existitu zela uste duenik ere, baina bera eta Aspasia Miletokoa, Periklesen emaztea eta, besteak beste, emakumeentzako es-

kola bat bultzatu zuena, pertsona bera izan zitezkeela diote. Sokrates eta Platonengan eragina izan zuen eta, beraz, ordurarteko pentsamendu pitagorikoa gainditzeko funtsezkoa izan zen emakume bat benetakoa izan zela zalantzan jartzen badugu, nola pentsatuko dugu, bada, hiri eta garai berean bi emakume nabarmendu zirela? ●



Egiptoar tratamendu ginekologikoa

Antzinako Egiptoko hainbat papiroetan jasota dagoenez, arazo ginekologikoak arintzeko asmoz, fumigazio baginalak erabiltzen zituzten, baina orain arte, idatzizko erreferentzia horiez gain, ez zen horren froga fisikorik aurkitu. Berriki, Granada eta Jaengo (Espainia) unibertsitateetako arkeologo batek emakumezko baten momian aurkitu du froga

hori, Qubbet el-Hawa aztarnategian (Aswan). Sattjeni A izeneko emakumea K.a. 1800 urte inguruan hil zen, 30 bat urte zituela eta pelbisean lesio bat zeukala ere ikusi dute ikerlariak. Hanken artean zeramikazko ontzitxo bat zeukan (argazkian), eta arkeologoek ondorioztatu dute fumigazioak egiteko erabili zutela, emakumearen oinazea arintzeko ahaleginetan. ●